

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**KIROLETAKO ETA KANPO EKINTZAKO
DEPARTAMENTUA**

*2009ko abuztuaren 19ko 145/2009 FORU AGINDUA,
Eskola Kiroleko Programaren barruko baimenak
arautzen dituena.*

Eskola kirolari buruzko 2008ko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak xedatzen duenez, lurralte historikoetako organo eskudunek prestatuko dituzte ikasturte bakoitzeko eskola kiroleko programak. Programa horiei dagokienez, badira kirol jarduera edo praktika batzuk, eskolako kirolaren programetan jasota ez daudelako edo programan ezarritako arau orokoren salbuespen direlako, foru organo eskudunak aldez aurretik baimen administratiboa ematearen mende gelditzen direnak.

Hauet dira, 2008ko uztailaren 1eko 125/08 Dekretuaren arabera, berariazko baimena beharrezkoa duten aparteko kirol jarduera edo praktikak:

— Dekretuaren 5.1 artikuluan kategoria bakoitzerako ezarritako lurralte eremuaz gaindiko jarduerak antolatzea edo halakoetan parte hartza, Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak txostena eman ostean (5.3 artikulua).

— Lehiaketa parte hartzaleetan aritzeko gutxieneko adina ez izatea, aldez aurretik Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak aldeko txostena eman ostean (8.4 artikulua).

— Errendimenduari ekiteko ibilbidearen jardueretan parte hartzeko gutxieneko adina ez izatea, aldez aurretik Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak aldeko txostena eman ostean. (9.3 artikulua).

— Eskolako kirolaren programetan jasota ez dauden kirol jarduerak antolatzea (11.2 artikulua).

— Eskolako kirolaren programetan jasotzen ez diren hasiera unitateetako eta teknifikazio unitateetako ikaskuntza jarduerak egitea (12.2 artikulua).

— Beste lurralte historikoetako erakunderen batekin eskola kiroleko jardueretan parte hartzeko eskola-umeei lizentziak ematea (13.2 artikulua).

— Erakundeek edo eskola-umeek beren egoitzari dagokion lurralte historikotik kanpoko beste baten urteko programetan parte hartza (13.3 artikulua).

— Eskola-umeei federazio lizentziak ematea. (13.4 artikulua).

Eman daitezkeen baimenen katalogo horretan, foru agindu honen xedeetatik kampo geratzen dira bai kirol ikaskuntzako jarduerei buruzkoak –beste foru xedapen batzuez erregulatuta baitaude– bai eta beste lurralte bateko eskola-ume, talde nahiz ikastetxeek Gipuzkoako lurralte historikoko eskola kirolaren programako jardueretan parte hartzeari buruzkoak ere –programaren beraren gorabehera gisa erabakitzten baitira eta, horregatik, programaren beraren osagai baitira–.

Bestalde, Gipuzkoako kirol federazioak oso implikaturik daude eskola kiroleko programaren garapenean, batik bat errendimenduari ekiteko ibilbidearen lehiaketei dagokienez. Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kiroletako eta

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE DEPORTES Y
ACCION EXTERIOR**

ORDEN FORAL 145/2009, de 19 de agosto, por la que se regula el procedimiento de concesión de autorizaciones en relación con el desarrollo de los programas de deporte escolar.

El Decreto 125/2008, de 1 de julio, sobre deporte escolar, dispone que los órganos competentes de los Territorios Históricos elaborarán sus programas de deporte escolar para cada curso. En relación con estos programas, existen determinadas actividades o prácticas deportivas que, o bien por no estar contempladas en los mismos, o bien por ser excepciones a las reglas generales en ellos recogidas, quedan sometidas a autorización administrativa previa a otorgar por el órgano foral competente.

La casuística completa de las actividades o prácticas deportivas excepcionales sujetas a autorización en el Decreto 125/2008, de 1 de julio, sería la siguiente:

— La organización o la participación en actividades en ámbitos que superen los indicados para cada categoría de escolares en el artículo 5.1 del decreto, previo informe de la Comisión Vasca de Deporte Escolar (art. 5.3).

— Superar la edad mínima para intervenir en las competiciones de participación previo informe favorable de la Comisión Vasca de Deporte Escolar. (art. 8.4).

— Superar la edad mínima para la participación en las actividades del itinerario de iniciación al rendimiento, previo informe favorable de la Comisión Vasca de Deporte Escolar. (art. 9.3).

— La organización de actividades deportivas no contempladas en los programas de deporte escolar. (art. 11.2).

— La realización de actividades de enseñanza en unidades de iniciación y de tecnificación deportiva distintas de las previstas en los programas de deportes escolar. (art. 12.2).

— La emisión de licencias a escolares para participar en actividades de deporte escolar con una entidad de otro territorio. (art. 13.2).

— La participación de entidades y/o escolares de un territorio histórico distinto en los programas de deporte escolar. (art. 13.3).

— La emisión de licencias federadas a escolares. (art. 13.4).

De este catálogo de posibles autorizaciones, no será objeto de la presente orden foral el procedimiento para el otorgamiento de las que se refieren a la realización de actividades de enseñanza deportiva, por cuanto que son reguladas por otras disposiciones forales; y las relativas a la participación de escolares, equipos o centros escolares de otro territorio en actividades del programa de deporte escolar del Territorio Histórico de Gipuzkoa, toda vez que se resuelven como incidencias del propio programa y, por ello, vienen a formar parte del mismo.

Por otra parte, en el desarrollo del programa de deporte escolar, especialmente en lo que se refiere a las competiciones del itinerario de iniciación al rendimiento, están fuertemente implicadas las federaciones deportivas guipuzcoanas. El

Kanpo Ekintzako Departamentuak lankidetzako hitzarmen bana sinatzen du federazioekin, besteak beste programako jardueretan hainbat eskaintzen duten lagunza teknikoa zehaztearen. Ondorioz, hitzarmen horiek bitarteko egokiak dira eskolako kirolaren urteko programan jasota ez dauden eta, beraz, berariazko baimena behar duten hainbat jarduera homologatzeko. Horrela, programan sartuta ez dauden jarduera asko homologatu ahal izango dira federazioekin sinatzen diren hitzarmenen bidez, eta horrela eskola kiroleko jardueren programan sartuta geratu, ondorio guztietarako.

Era berean, ikastetxeek, kirol eragileek eta tokian tokiko udalek osatuta, egitura sare bat dago eskola kiroleko jarduerak herri mailan kudeatzeko, eta Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuak hitzarmena sinatzen du egitura horiekin, alde bakoitzak, ikasturtero, bere gain hartzen dituen betebeharra zehaztearen. Hitzarmen eta herri mailako egitura horiek egokiak dira baita ere, kirolean parte hartzeko ibilbidearen jarduera asko eta asko homologatzeko, hain zuzen ere eskolako kirolaren urteko programan sartuta ez dauden eta, beraz, Foru Aldundiaren berariazko baimena behar duten jarduerak. Horrela, kirolean parte hartzeko ibilbidearen jarduera asko eskolako kirolaren jarduera programan sartu ahal izango dira ondorio guztietarako.

Horregatik guztiagatik, Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatuak,

EBATZI DU

1. artikulua.

Foru agindu honen helburua da arautzea zer prozeduraren arabera emango diren eskolako kirolaren programak garatzeko baimenak, baldin eta horien xedea hauetakoren bat baldin bada:

— 2008ko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, Eskola Kirolari buruzkoak, 5.1. artikuluan eskolako kirolaren kategoria bakoitzerako ezartzen duen lurralte eremua gainditzen duten jarduerak antolatzea edo halakoetan parte hartza, Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak txostena eman ostean.

— Eskolako kirolaren ibilbideetako jarduera jakin batzuetan parte hartzeko gutxieneko adina ez izatea, Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak aldeko txostena eman ostean.

— Eskolako kirolaren programetan jasotzen ez diren kirol jarduerak antolatzea.

— Eskola-umeei lizentzia ematea eskolako kirolaren jardueretan beste lurralte bateko erakunderen batekin parte hartzeko.

— Eskola-umeei federazio lizentziak ematea.

2. artikulua.

- Eskolako kirolaren kategoria bakoitzerako ezarrita dauden lurralte eremuak gainditzen dituzten jarduerak antolatzeko edo halakoetan parte hartzeko baimena eskaerak eta, halaber, eskolako kirolaren programetan jasota ez dauden kirol jarduerak antolatzeko baimen eskaerak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol Zuzendaritza Nagusiari aurkeztu behar zaizkio, jarduera horiek hasi baino bi hilabete lehenago gutxienez, aparteko inguruabarren ondorioz aurrerapen laburragoaz eskatzea zuritua dagoenean izan ezik.

Departamento de Deportes y Acción Exterior de la Diputación Foral de Gipuzkoa suscribe un convenio de colaboración con cada ente federativo en orden, entre otras cuestiones, a la asistencia técnica que éstos prestan a las actividades del programa. Pues bien, estos convenios resultan instrumentos idóneos para la homologación de un importante número de actividades no incluidas en el programa anual de deporte escolar, y cuya celebración requiere, en principio, de la oportuna autorización. De este modo, muchas actividades ajenas al citado programa podrán ser homologadas a través de los convenios con las federaciones, integrándose, por tanto, en el propio programa de actividades de deporte escolar a todos los efectos.

Asimismo, la gestión del deporte escolar en el ámbito municipal está basada en un entramado estructural del que forman parte los centros escolares, los agentes deportivos y el Ayuntamiento respectivo, con quien el Departamento de Deportes y Acción Exterior suscribe un convenio de colaboración que recoge, para cada curso, las obligaciones que asumen las partes implicadas. Estos convenios y estas estructuras municipales resultan también idóneos para la homologación de un importante número de actividades del itinerario de participación, no incluidas en el programa anual de deporte escolar y cuya celebración requiere de la oportuna autorización de la Diputación Foral. Así pues, de este mismo modo, muchas de estas actividades del itinerario de participación podrán, igualmente, integrarse a todos los efectos en los programas de deporte escolar.

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior,

RESUELVE

Artículo 1.

Es objeto de la presente orden foral la regulación del procedimiento de concesión de autorizaciones en relación con el desarrollo de los programas de deporte escolar cuando su objeto sea alguno de los siguientes:

— La organización o la participación en actividades en ámbitos que superen los indicados para cada categoría de escolares en el artículo 5.1 del Decreto 125/2008, de 1 de julio, de deporte escolar, previo informe de la Comisión Vasca de Deporte Escolar.

— Superar la edad mínima para tomar parte en determinadas actividades de los distintos itinerarios del deporte escolar, previo informe favorable de la Comisión Vasca de Deporte Escolar.

— La organización de actividades deportivas no contempladas en los programas de deporte escolar.

— La emisión de licencias a escolares para participar en actividades de deporte escolar con una entidad de otro territorio.

— La emisión de licencias federadas a escolares.

Artículo 2.

- Las solicitudes de autorización para la organización o la participación en actividades en ámbitos que superen los indicados para cada categoría de escolares y para la organización de actividades deportivas no contempladas en los programas de deporte escolar deberán presentarse ante la Dirección General de Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa con una antelación mínima de dos meses al comienzo de las citadas actividades, salvo que circunstancias excepcionales justifiquen una solicitud con menor antelación.

2. Gainerako baimen eskaerak, balioa izango dutenak dagokien eskolako kirolaren programako ikasturtea amaitzen den urteko abenduaren 31 arte gehienez, eskatu behar zaizkio foru organo horri berari, urte horretako urriaren 31 baino lehen.

3. artikulua.

Baimenak lortu nahi dituztenek dokumentazio hau aurkeztu behar dute:

- a) Baimen eskaera, Kirol Zerbitzuak emango duen ereduaren arabera behar bezala betea.
- b) Baimena eskuratzea zuritzen duten arrazoiak, batez ere azalduz jarduerak bat datozena 14/1998 Legean, Euskadiko Kirolarenean, 125/2008 Dekretuan, Eskola Kirolari buruzkoan, eta dagokien eskolako kirolaren jarduera programan jasotzen diren arau eta printzipioekin.
- c) Baimenaren hartzale izango diren edo jardueretan parte hartzeoak diren eskola-umeen zerrenda eta egiteko den jardueraren ezaugarriak (ordua, lekua, iraupena, dedikazioa, mediku kontrola, eta abar).
- d) Aseguru poliza, antolatzaileen erantzukizun zibila estaltzen duena.
- e) Intereseko beste datu batzuk (teknikariak, adinak, eta abar).

4. artikulua.

1. Kirol Zuzendaritza Nagusiari eskaera egin eta hark ez badu bere ebazpena hiru hilabeteko epean ematen, uler daiteke eskatutako baimena emanda dagoela.

2. Eskaerak ez baditu 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen edo eskaeraren punturen bat argitu edo zuritu behar baldin bada, eskaera aurkeztu duenari eskatuko zaio hamar eguneko epean hutsegitea konpontzeko edo falta den dokumentazioa edo eskatutako argibideak aurkezteko. Eskatutakoa ez badu epe horren barruan betetzen, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, horretarako ebazpena eman ondoren. Hamar egun horietan etenda geldituko da ustezko onarpen egintza gerta-tzeko aurreko atalean aipatzen den epea.

3. Eskolako Kirolaren Euskal Batzordearen txostena derrigorrezkoa den kasuetan, 2008ko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 19.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Batzordeak gehienez hilabeteko epea izango du txostena emateko; epe horretan etenik geratuko da baimena emateko prozedura ebazteko artikulu honen 1. atalean aipatutako epea.

5. artikulua.

1. Kiroletako zuzendari nagusiak aztertu eta ebatziko ditu baimenak.

2. Baimena emateko, zenbait baldintza betetzea eska daiteke.

3. Baimena emateko ebazpenean jarri diren baldintzak ez badira betetzen, baimena baliogabetzea gerta daiteke.

6. artikulua.

Eskolako kirolaren programetan jasotzen ez diren kirol jarduerak baimentzeko garaian, baldintza hauek betetzen al diren hartuko da kontuan:

- a) Eskolako kirolaren printzipio eta helburuekin bat etor-tea.
- b) Eskola-umeen adinerako egokiak izatea.
- c) Programako jarduerekin bateragarriak izatea (egutegiak eta orduak).

2. Las restantes solicitudes de autorización con validez no superior al 31 de diciembre del año de finalización del curso del programa de deporte escolar que corresponda, deberán presentarse ante el mismo órgano foral con anterioridad al 31 de octubre de ese mismo año.

Artículo 3.

Quienes deseen obtener las citadas autorizaciones deberán aportar la siguiente documentación:

- a) Solicitud de autorización debidamente cumplimentada, según modelo que facilite el Servicio de Deportes.
- b) Exposición de las razones que justifican la autorización y, muy en particular, la adecuación de las actividades a las normas y principios contenidos en la Ley 14/1998, del deporte del País Vasco, en el Decreto 125/2008, de deporte escolar, y en el programa de actividades de deporte escolar correspondiente.
- c) Relación de escolares a los que se refiere la autorización o van a participar en las actividades de que se trate, así como las características de la actividad a desarrollar (hora, lugar duración, dedicación, control médico, etc.).
- d) Póliza de seguro que cubra la responsabilidad civil de los organizadores.
- e) Otros datos de interés (técnicos, edades, etc.).

Artículo 4.

1. Cuando se formulase solicitud ante la Dirección General de Deportes y ésta no dictase resolución en el plazo de tres meses, podrá considerarse otorgada la autorización solicitada.

2. Si la solicitud no reuniese los requisitos señalados en el artículo 3 o alguno de sus extremos necesitase ser aclarado o justificado, se requerirá a quien la hubiese presentado para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe la documentación o aclaración solicitada, transcurrido el cual sin haberlo hecho, se le tendrá por desistido, previa la correspondiente resolución. Durante este plazo de diez días quedará interrumpido el transcurso del señalado en el apartado anterior para la producción del acto presunto estimatorio.

3. En los casos en los que sea preceptivo el informe de la Comisión Vasca de Deporte Escolar, ésta tendrá, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 19.2 del Decreto 125/2008, de 1 de julio, un plazo máximo de un mes para su emisión, plazo durante el que quedará interrumpido el señalado en el apartado 1 de este artículo para resolver el procedimiento de autorización.

Artículo 5.

1. El conocimiento y resolución de autorizaciones corresponde al director general de Deportes.

2. El otorgamiento de autorizaciones podrá someterse al cumplimiento de determinadas condiciones.

3. El incumplimiento de las condiciones recogidas en la resolución de otorgamiento de la autorización podrá dar lugar a su revocación.

Artículo 6.

Para la autorización de la organización de actividades deportivas no contempladas en los programas de deporte escolar se atenderá al cumplimiento de los siguientes requisitos:

- a) Adecuación a los principios y objetivos del deporte escolar.
- b) Adecuación a las edades de las y los escolares.
- c) Compatibilidad con las actividades del programa (calendarios y horarios).

- d) Parte hartzeko egiturak izatea.
- e) Koherenteak izatea dagokien modalitatearen araudiarekin.
- f) Jardueraz arduratzen direnak gai izatea.
- g) Ikaskuntza programak egokiak izatea eskola-umeen berariazko ezaugarrietarako.
- h) Instalazioek beharrezko segurtasun eta higiene baldintzak betetzea.
- i) Jardueretan parte hartzen dutenen arrisku-estaldura edukitzea.
- j) Lehiaketa parte hartzaleen kasuan, Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak definitutako lehiaketaren ezaugarri teknikoen bat etortzea.

7. artikulua.

Kirol Zuzendaritzako Nagusiak jakiten badu baimenpekoak diren eta baimena eskuratu ez duten eskola kiroleko jarduerak egiten ari direla, jarduera horiek berehala eteteko agindua emango du, legokiekeen zigor espedientea irekitzea eragotzi gabe.

Jarduerak oraindik hasi gabe baldin badaude, Kirol Zuzendaritzako Nagusiak horiei buruzko informazioa eska dezake eta, hala badagokio, jarduerak debekatu.

8. artikulua.

Kiroletako zuzendari nagusiaren ebazenen aurka interesuak gora jotzeko errecurrsoa aurkez dezake Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatuaren aurrean.

9. artikulua.

Eskolako kirolaren programetan ondorio guztieta rako sartuak geratuko dira lurraldeko kirol federazioekin –programako jardueren kontrol teknikoa egiteko– sinatzen diren lankidetza hitzarmenetan jasotzen diren jarduerak.

Era berean, eskolako kirolaren programetan sartuak geratuko dira Gipuzkoako udalekin edo udal elkartekin –eskolako kirola kudeatu eta atenditzeko egiturak sortu edo, sendotu eta garatzeko– sinatzen diren lankidetza hitzarmenetan jasotzen diren kirolean parte hartzeko jarduerak.

Amaiera konbentzional honen araubide juridikoa 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Procedura Erkideari buruzkoak, 88. artikuluan jasotakoa izango da.

Azken xedapena.

Foru agindu hau 2009ko irailaren 1ean sartuko da indarrean.

Denek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2009ko abuztuaren 19a.—Ramón Martiarena Bergaretxe, idazkari teknikoa (10304)

- d) Estructuras de participación.
- e) Coherencia con la ordenación de la modalidad correspondiente.
- f) Capacitación del personal responsable de las actividades.
- g) Programas de enseñanza adecuados a las características propias de las edades de los y las escolares.
- h) Condiciones de seguridad e higiene de las instalaciones.
- i) Cobertura de riesgos de las y los participantes en las actividades.
- j) En el caso de competiciones participación, sintonía con las características técnicas de la competición definidas por la Comisión Vasca de Deporte Escolar.

Artículo 7.

En el supuesto de que la Dirección General de Deportes tuviera conocimiento de que se están realizando actividades de deporte escolar sometidas a autorización sin haberse obtenido ésta, procederá, sin perjuicio de la incoación del correspondiente expediente sancionador, a acordar la suspensión inmediata de tales actividades.

Si las actividades todavía no hubieran tenido lugar, la Dirección General de Deportes podrá solicitar información sobre la realización de las mismas y, en su caso, prohibir dichas actividades.

Artículo 8.

Contra las resoluciones del director general de Deportes podrá interponerse recurso de alzada ante el diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior.

Artículo 9.

Quedarán incluidas a todos los efectos en los programas de deporte escolar las actividades que se contemplen en los convenios de colaboración que se suscriban con las federaciones deportivas territoriales en orden al control técnico de las actividades incluidas en el programa.

Del mismo modo, quedarán incluidas en los programas de deporte escolar las actividades del itinerario de participación contempladas en los convenios de colaboración que se suscriban con las entidades locales o asociaciones de municipios guipuzcoanos, en orden a la creación o consolidación y desarrollo de estructuras de gestión y atención al deporte escolar.

El régimen jurídico de esta terminación convencional será el previsto en el artículo 88 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Disposición final.

La presente orden foral entrará en vigor el día 1 de setiembre de 2009.

Lo que se publica para general conocimiento.

Donostia-San Sebastián, a 19 de agosto de 2009.—El secretario técnico, Ramón Martiarena Bergaretxe. (10304)